

**HERRI ETA AUZOETAKO JAIK
BEGI BISTAN**

Jaiak begi bistan eta oroimenean. Horrek esan nahi du batetik oraingo jaietara begira nagoela, eta bestetik lehengoak ere gogoan ditudala.

Zer ote dira jaiak? Eguneroko bizitzan, betiko ibilera diziplinazkoan, albora egitea, salbuespen antzeko zerbait eta urterokoa egitea, gozoagoaren bila, betikoari eta ohikoari iheska, haren beste aldearen bila. Paradisu zatitxoa, egun berezi batzuetan gordea, irrikatzen da; baina ez nik neuretzat bakardadean bilatzen dudana, elkarren artean eta elkarrentzat herri edo auzo mailan egiten dena baizik. Hona tradizioko gure jaietara lehenengo begiradan hartzen dieran traza.

Jaiak ez dira erretiro-egunak, kanpora eta harremanetara murgiltzeko egunak baizik; ez ezkutatzeko, lagun artean agertzeko baizik. Jaietan herria hartzen da kontuan. Plazako egunak direla esatea gehiegi ote da? Etxe barruak ez, plaza ageria da jaietan agintzen duena: plazako dantza, plazako musika, plazako bertsolariak, plazako gozoki, txurro eta barkillo saltzaileak; umeak, diru xehea aldean edo batere ez, haiei begira adurra dariela, gehiago zeukatenean inbidiaz... Plazarik ez den auzoetan, ermita ondoko zelai edo landak egiten du haren ordekoa. Umetan, auzoko jaietan, gogoan dut zelai er-tzean mahai baten gainean jarri zutela gramofono bat eta haren ondoan sagarrondo baten adarrean kokatu bozgorailu handi bat, auzo osora eta ia Solluberaino bere soinu durundi-

tsua zabaltzen zuena. Musikak eta airera bota eta biziki eztanda egiten zuten suziriek berotzen zuten giroa. Hortik aurrera, garai haietan, ez zen gauza handirik behar, ez egitarau idatzirik; dena zen jai-giro hartan murgiltzea eta hark eramaten uztea. Eramaten uztea, edota partaideen unean uneko sormenak iradokitzen zuena. Beti izaten ziren plazako giroa alaitzen eta umorea ezartzen zekitenak.

Hala ere, herriaren oroimenean, tradizioan, ohituretan idatzirik edo, hobeki esan, grabaturik, zeuden hainbat gauza, aurretikoek egiten zituztenak. Haiiek egin beharrekotzat hartzen ziren, eta egin ezik jaiak ez zirela jai edota ez zihoazela bide onetik uste izaten zen.

Jaien erlijiozko alde

Gure jaiek, kristau-kultura hain errotua duen Europa honetan, erlijiozko eduki handia dute, kristau-educia zehazki esanik. Eta hori izenetik bertatik hasita. Herriaren ahotan, Hegoaldean, “San Joanak”, “Magdalenak”, “San Drokeak”, “Andre Mariak”, “San Migelak” etab. esan ohi da. Hasi ere ekintza erlijiosoaz hasten ziren eta hasten dira. Baina lehenik koka dezagun gaia bere ingurune zabalean.

Gure bizitza soziala eta kulturala, erlijiotasunez aserik edo blai daude. Antzina zaharrera, gure arbasoen garaira, begiratzten badugu, erlijiotasun-aztarnak garbi agertuko zaizkigu. Erlijiotasuna esanahi zabalean uler daiteke, baina hemen eta gaur, erlijiotasuna esaten denean, kristau eta katolikoa esan nahi da.

Gure garaiko euskal kultura kristau-kulturarekin estu-estu loturik dago. Hizkuntzan eta erakunde publikoetan begi-bistakoa da hori. Esaterako, *kofradia* izena, auzoa adierazteko; *elizatea*, hiribildua ez den Bizkaiko herri-erakunde zaharra, herriko batzarrak elizpean egitetik izena hartzen duena; *piella*, elizate edo herriko burua; *piel-barria*, piela esertzen zen

elizpeko harrizko mahaia; *erromeria*, debozior eginiko bi-daia (jatorriz Erromara joateaz esaten zen); gaur egun, santua bisitatzearen aitzakiaz, egin ohi den herri-jaia da; *erromesa*, santutegi batera joateko herriz herri ibiltzen dena (izenaren arabera, santutegi hau Erromakoa da, kristautasunaren bihotza)... Hauek errealitate zabalago baten adibide batzuk baizik ez dira, kristau-kulturak gure kultura zenbateraino markatu duen eta zein aztarna garbiak utzi dituen erakusten dituztenak.

Garai zaharretan, jaiak eguneroko bizitza gogorraz egun batzuetan ahanzte eta erlijio-arau eta debekuei pixka bat iskintxo egitea bazekartzaten ere, erlijioak nolabaiteko zaintza eta kontrola ezartzen zuen plazako dantza, entretenigarri eta jolasetan. Sermolarien hitz haietatik jasoriko doktrina pixka bat barneratua izan ohi zuen kristau festazaleak. Hortik, barneko eta isileko hitzarmen antzeko bati men egitea: halako neurrien barnean aritzeko kontsentsu antzekoa. Gogora deza-gun abemarietakoak jotzean izaten zela erretiro-unea, orduan isiltzen baitzen musika. Kontu haiek gogoratzean, antzina zaharrekoak direlako izaten dugu, baina guk geuk bizi izan ditugu. Diziplina eta ohituretako galbahe estu hori ez zen apaiz eta sermolarien kontua soilik. Lehen gizartea ere hartara jarria zen, eta neurri haietatik irteten zena gaizki ikusia gainera. Mutilei, desordu samarrean etxerutzen zirenean, ez zitzairen hain zorrotz kargu hartzen; bai, ordea, neskatilei; “hauek dira etxera etortzeko orduak...?”. Orain ez dago lehengorik eta, oraingoa ikusirik, haiek atzerakoiak eta tolerantzia gutxikoak zirela begitanduko zaigu, beharbada. Baina ez atzerakoiak eta ez barru estukoak, garai hartakoak, doktrina zaharrekoak ziren eta ez besterik.

Jaietako meza nagusia handikiro egiten zen, kanpotik ekarritako sermolaria ezinbestekoa izan ohi zen. Auzoetako jaietako baselizetan ez, baina herri handi samarreko parroketan, bertan kanta-talderik egon ezik erbestetik ekartzen

zen. Aurretik prozesioa egiten zen; hau ere handikiro. *Nire Umetako Meñaka* liburuan gure herrian San Roke egunean egiten zena dator:

“Txistulari eta danbolinteroak izaten ziran. Abuztuaren 16an, meza nagusia (beluko meza) handikiro egiten zan. Meza aurretik, eliz ingurua (prozesioa); lehenengo gurutzea joian, haren atzetik abadea kapa plubial dotoreaz alde bietan akolitoak zirialekin zituala, gero San Rokeren irudia, txistulariak eta eliztarrak. Martxa antzeko kantua abesten eban abadeak; hitzak latinez zirala uste dot.

Egun horretan jende asko etorri ohi zan erbestetik: Billbotik autobus bat edo bi, Bakiotik, Bermeotik, Mañutik...”.

Alde erlijiosoa eta zibila nahiko bat eginik agertzen ziren hainbat zeremoniatan. Markina eta Xemein bakoitza bere burujabe zireneko gauza bat biltzen da *Nire Sasoiko Markina-Xemein* liburuan. Hona hitzez hitz atal hura:

“Egiaz, esanguratsua da San Migel eguneko ohitura hau: Markinako eta Xemeingoa zan Jasokundeko Andra Mariaren parrokiatik prozesioa egiten zan Arretxinagarantz. Xemeingo udalbatza, bien arteko mugarria egoan zubian egon ohi zan zain. Hara heltzean, prozesioa geratu eta alkate biak bataren eta bestearen eskumeneko banaketa-lerrora aurreratu ohi ziran eta bien alkate-zigorak gurutzatuz, muin egin ohi eutsien kurutzeari; lehenengo Markinakoak eta gero Xemeingoak. Hori egin ostean, Markinako alkatea, bere udaltzaina lagun eballa, hiribildura bihurtzen zan eta prozesioak aurrera egiten eban, Xemeingo lurretan orain, elizateko udalbatza buru zala, Arretxinagako ermitaraino.

Uste da, XVI. eta XVII. mendeetan bien artean izan ziran gatazka eta borroka ugarien ondoren, bakeak egiteko alkarri emoniko besarkada esan nahi dauzala ekintza horrek. Jazoera honetan alde erlijiosoa eta zibila estu-estu uztarturik ageri

jakuz, baina ez nahasturik. Hau da, naturaltasun osoz alkarturik, baina era berean libre eta bakoitza bere eskumenean”.

Hainbat ohitura eta tradizio

Gauza batzuk, beharrezkoenak, bideratzeko, gazte taldeak izaten ziren, ia beti 16-18 urte inguru zituzten mutilak. Adin horretan gizarteko gauzetan esku hartzen hasteko premia izaten zuten gazteek, eta herri txiki eta auzoetan horretan trebatzeko era ederra ziren jaiak eta egun bereziak; hauetakoak ziren, esaterako, eskeko erronda-egunak, Marijesiak, Erregentakoak, Inauteriak, San Joan bezperako suak etab. Gazte talde hauei “plaza-mutilak” zeritzen toki batzuetan eta “zahagi-mutilak” edo “eskotekoak” beste batzuetan. Hauek jaietarako eskotean ordaintzen zen zahagi bat ardo lortu behar izaten zuten aurreko egunetan. Beraz, aurreko egunetatik jai-giroan murgildurik, besterik gogoan ez zutela, beren batzartxoak-eta egiten zituzten. Zahagia udaletxe bebaruko bazterren batean gordetzen zen jaiak hasten ziren egunera arte. Jai-lekura eramatea alaia eta era berean arranditsua izan ohi zen eta antzerki erritual airea zuen. Ez da ahaztu behar euskal tradiziozko dantzen artean “zahagi-dantza” deritzana ere badela. Mungia aldeko herri txiki eta auzoetan ohikoa zen; “eskota eroatea” esaten zitzaion. Larrauriko Emerandoko Kofradietan eta Meñakabarrenako Trinitateetan ezin falta halakorik gure umetako jai haietan. Ondo apainduriko idiek hobeto jantziriko gurdian eramaten zuten; haren ondorik, soinularia eta pandero-jotzaileak eta atzetik jendea. Bidean zahatoa ere eskutik eskura airean zebilen eta ez zen harritzekoa bateren batzuk jaien hasiera-hasierarik nahiko txolindurik geratzea... Zahagia bere lekura iristean aureskua egiten zen eta zeremonia honekin hasiak ziren ofizialki jaiak.

Gero txistulariak eta atabal-jotzaileak edota soinulariak eta pandero-jotzaileak, nahiz batzuek une batzuetan eta besteek

besteetan, harten zuten plazaren edo jai-lekuaren erdigunea eta giro hartan murgiltzen ziren guztiak. Dantza eta haur-jolasen ordua zen, barruak hala eskaturik eta arautu gabe egiten zirenak. Dantza, musikaren erritmora, mutil eta neska plazakoen kontua zen. Haur-jolasak, harrapaketa eta korrika jende artean... Baziren jolas arautuagoak ere, esaterako: “txokolate-jana”, “lurrezko lapikoa”, “eskegiriko zartagina”, “eskegiriko sagarra”, “aulki-jokoa”, “txokor-batzea”, “zaku-lasterketak”, “asto-lasterketak”. Hauek adinekoek antolatzen edo gidatzen zituzten, haurrak hartara erakarriz eta gonbidatuz eta baziren gazteek egiten zituztenak ere, esaterako, “asto-lasterketak”. Hauek, izan ere, haur-jolasak baino gehiago kirolak edo lehiaketak zirela esango genuke.

Oraingo jaietan ohikoak dira pilota-partidak; hauek frontoia duten herrietan, ez auzoetako jaietan; bertso-afaria; sukalki-eguna eta janari-mota bat edo beste prestatzeko lehiaketa; herri-bazkaria; mus-txapelketa...

Lehenago jaietan gehiena arautu gabea izan arren, arauturiko ekintzen artean, haurtaroko garaietan, dantza solte lehiaketa zen jendearen gogokoenetakoa. Hau ere ohiko jantzi-egin ohi zen orduan herri txikietako jaietan; kanpotik zetozen bikoteak soilik agertzen ziren dantzari-jantzi berariazkoaz; partaide gehienak bertakoak edo inguruetakoa izaten ziren. Udaltzainak makila astinduz korroa eginez erazten zuen dantzarako plazatxoak: umeak eta txikienak aurrealdean zutik edo lurrean eserita eta gainerakoak atzealdean. Ez zen oholtzaren beharrik. Gauzak sinpleki eta natural eratzen ziren. Dantzari onak zeuden Meñaka eta inguruetan, inongo talde edo eskolatan ikasi gabeak. Etxetik zituzten zaletasuna, dantzarako sena eta jasa. Ziur asko, etxekoartean familiako jaietan trebatuko ziren. Aita nahiz ama, osaba-izebak dantzariak zituztenek asko zutela eginik esan zitekeen. Dantzarako arteak, tradizioa eta etxeko eskola lagun, seme-alabengan edo ilobengan izaten zuen segida edota hala gertatzea normalizat

har zitekeen. Orain Meñakan dantza-taldea eratua dago eta ziur gaude dantzari onak irtego direla harrobi hartatik.

Dantzaz ari garela, asko legoke esateko Gerediagako erregelez, baina nire jakinduria urria ez da ausartzen hor muturra sartzan, horietaz maisu handi jakintsuak direla jakinik. Badakit Iurretan San Migel handikiro ospatzen dela. “Aita San Migel Iurretako...”. Bezperan Donibane-zuhaitza, oker ez banago bertan “Donien-hatxa” esaten diotena, jarri ohi dute plazaren erdian eta haren itzalpean burutzen ziren elizate hartako dantzak eta jai-jarduera guztiak. Hortik aurrerakoaz eta Gerediagako dantzei dagokienaz nik neuk dakidan maisu bati utzi nahiko nioke hitza, bera idaztera menturatuko balitz...

Markina-Xemeinen ere ez dira ahazten San Migel Arretxina-gakoaz. Hemen azken berrogeita hamar urtetan eta gehiagotan gure folklorea gordetzeko eta ahaztuak berreskuratzeko egin izan den lan txalogarria aipatu eta goraipatu nahiko nuke, labur bada ere. Felipe Amutxastegi ageri zaigu lan erraldoi horren buruan, dantzari-maisu eta dantza autoktonoen ikertzaile eta berreskuratzaile, eta honen ondoan izan diren hainbat laguntzaile fin, batez ere hasieratik Zerutxu dantza-taldean txistulari izan den eta gaur egun ere lehengo horretan jarraitzen duen Imanol Aretxabaleta.

2009an argia ikusi zuen *Nire Sasoiko Markina-Xemein* liburuan biltzen nituen Zerutxu Dantza Taldeak argitaratu zuen *Euskal Folklorea Lantzen* liburutik jasoriko hainbat apunte eta Felipe Amutxastegiri *bitzako* kazetariak egin zion elkarrizketa. Handik hartu eta laburturik bilduak dira ondorengo atal hauek. Besteak beste, hainbat dantza, antzina egiten zirenak, nola berreskuratu zituzten kontatzen zaigu:

Xemeingo ezpata-dantza, esate baterako. 1898ko argazkiak daude erakusten dutenak orduan egiten zela eta baita 1915ekoak ere, baina gero zati baten ez zen egiten, ez dakit zergatik, eta Batzokiko jendeak holako dantza bat galtzea pe-

na izango zela eta berreskuratu nabi zuten. [Josena]Aginagak ezpata-dantza guztia apuntatu eta marraztu zuen. Material guzti hori plastifikatu eta sailkatu nuen eta nik daukat gorde-ta. Gerra aurrean gertatu zen hori guztia eta urte batzuetan abaztu egin zen berriro.

Berreskuratzeko lehenago egin ziren ahaleginak aipatzen dizkigu ondorengo lerroetan:

1942an Segundo Olaeta koreografoa etorri zan Markinara eta bertako ezpata-dantza ikasi nabi zuen baina ez zioten erakusten, edo nabita txarto erakutsi zioten. (...) Olaetak bere erara muntatu zuen dantza eta behin markinarrak Bilbon dantzatu zutenean bark ikusi eta baserretu egin zen.

Goian aipaturiko *Euskal Folklore*a Lantzen liburuan Xemeingo Dantzaren historia dator 65. orrialdetik 76.era bitartean. Dantza hori, gerratea eta beste hainbat eragozpen zirela-eta, luzaroan egin gabe eta erdi ahaztua izan zen. Dantzari zaharren gomutan ahal bezain ongi gorderik, hori bai. Agustin



Ugartetxea (Goiti) izan zen Xemeingo dantzari zaharren aitzindari bertako dantza hori berreskuratzen. Juanito Onaindia eta Bernardino Larruskain izan zituen lagun horretan. Bestalde, garbi geratzen da liburu honetan Segundo Olaetak eraturikoa ez zela Xemeingo Dantza jatorra. Koreografo honen dantzaren deskripzio laburraren ondoren, hau dator aipaturiko liburu horretan:

Holan dantza honek [Olaetarenak] beste ikusgarritasun eta banditasun bat hartu eban, baina gure ezpata dantza jatorra aldatua izan zan.

Egia esateko, Olaeta jaunak asmatutako Arretxinagako San Migelen dantza, beste dantza bat da.



Urte mordoxka batean dantzatu omen zuen dantza hau Markinako “Artibai” taldeak Ansola anaiak txistulari zirela, Olaeta jaunaren zuzendaritzapean. Baina Felix Ansolak zioenez, sekula ere ez Arretxinagako San Migel jaietan. Izan ere, 1952ra arte Markina eta Xemein bakoitza bere burujabe ziren eta “Artibai” taldea Markinakoa zen.

Liburuaren beste pasarte batean hau irakurtzen dugu:

1955etik gaur arte butsik egin barik dantzatu izan da Xemeinen ezpata dantza jatorra. Behin bakarrik, 1960an ez zan dantzatu herri-dolu bategaitik.

Zerutxu hasi aurretik Arretxinagako San Migelen taldeko gazteek bete zuten antzinako ohitura hori “Goitti”ren zuzendaritzapean. Zerutxu taldeak ere harengandik ikasi zuen dantza hau, baina aintzat hartu zituen beste ezpata-dantzari zahar batzuen iritziak ere. Azkenik, Agustin Ugartetxea eta gainerako dantzari zaharregandik ikasirikoa, Jose Aginagak zituen paperekin osotu zen. Gerra aurrean idatziriko paper batzuk ziren. Eta idatzi hartan Xemeingo Dantza zehatz-zehatz azaldurik agertzen da.

Liburu honen egileek poz handia erakusten dute dantza hau guztiz berreskuratzean:

Oso-osoan berreskuratua izan dan ezpata dantza hau da, era honetara 1979. urtetik hona, San Migelen omenez ospatzen diran jaietan dantzatzen dan ezpata dantzea. Edozelanebe, aldaketak ez dira izan sustraizkoak. Aitatu dogun 1979. urtean eta Arretxinagako jaietan, bain zuzen be, dantzari zahar boneei omenaldia eskaini jaken.

Galduriko beste ohitura batzuk ere argitara ekarri eta eraberritzea lortu dute. Hona Feliperen hitzak:

Markinako aratusteetan, Saragi-dantza eta Hartzaren obitura berreskuratu genituen. Dantzaren erreferentziak daude hamazortzigarren mendetik baina gero galdu egin zen. Har-

tzarena amak ere gogoratzen zuen, baina duela 70 bat urte utzi zitzaion egiteari. Horreek biak orain dela 30 bat urte berreskuratu genituen.

Azkenik, joaniko denboraren zurkuluren batean galduta zeuden beste bi dantza gehiago ekarri zituzten plazara:

Bai, Arretxinagako Mahai gaineko dantza eta Lekeitioko Andren Aurrekua berreskuratu genituen. Azken hau 1974an atera genuen berriro, hango jendeari galdetu eta galdetu ibili eta gero. Harrezkero eurek egiten dute.


Elkarrizketa horretan aipatzen ez den beste dantza bat ere Zerutxuk berreskuraturikoa zelakoan nengoen: “Linuaren penak” edo holako izena du. J.A. Mogelen *Peru Abarka* liburuan datozen bertsoak kantatzen dira hor. Baina Iurretako dantza-taldeak berreskuraturikoa izan behar du, Felipek argitu didanez. Zerutxuk egin duena, Iurretakoek erabiltzen dituzten beste koplak batzuen ordez, Mogelen *Peru Abarkakoak* osorik erabiltzea izan da.

Herri-kirolak

Gure jaietako herri-kirolen jatorria baserriko lanetan zen. Estropaden kasuan, itsasoko lanetan; baina hauek herri-kirolen multzoan ez dira sailkatu ohi. Horrez gainera, kostako herrietan badira beste kirol edo entretenigarri batzuk ere, hauen artean, “nasapuntakoa” eta “antzara-jokoa”. Herri-kirol ohikoenak “sokatira”, “aizkora-jokoa”, “harri-jasotzea”, “txingaramatea”, “gizon-probak”, “lasto-jasotzea” dira; hau Iparraldean oso erroturik dagoena eta Hegoaldera ere honezkero nahiko zabaldu dena. Herri-kirolen multzoan sar ditzakegu “ardi-txakur lehiaketak ere, artzaintza-lanetik sortuak baitira. Gero animaliekin egin ohi diren herri-kirolak daude, batez ere “idi-probak”, “asto-probak” eta “zaldi-probak”; azken hauek Lea-Artibai aldean nahiko errotuak. Entzun izan dut, “idi-probak” bai baina beste hauek ez direla oso zaharrak. Esaterako,

“asto-probak” eta “gizon-probak” Munitibarko Gerrika auzoan Santa Luzia basilizaren ondoan egin zirela lehenengoz Euskal Herrian. Herri-kirolekin loturik joan ohi zen, gehienetan, apustua; horrek erakusten zuen nolako grinaz eta garrez hartzen ziren kirol hauek gure herrietan.

Urtea gogorra izaten zen eta jaietan jendeak asaskatu beharra izaten. Hala ere, oraingo begiz ikusita, oraingo bihotzez sentituta, lehengo hainbat ohitura animaliak tartean zirela, ez direla onargarriak esan behar; berez-berez eta sentipenak hartara eraginda, galbahe estua jartzen diegu horietako proba askori eta debekuzko idazpurua. Futboleko irudia erabiliz, txartel gorria agertuko genieke hainbat jardueri. Gure entretenigarri, guk geuk ongi pasatzearren, zilegi al da animaliei sufriaraztea eta tratu txarra ematea? Ahari-topekak, oilar-borrokak etab. ikusten ziren gure herri txikietakoz plazetan. Gaur egun, zorionez, nahiko ahazturik daude. Antzara-jokoak ere dagoeneko ez dira animalia biziekin egiten, aurrez hilda daudenekin edota plastikozkoekin baizik. Kostako herrietan ez ezik, lehorrekoetan ere egiten zen antzara-jokoa. Markina-Xemeinen irauten du oraindik antzinako aratusteetako ohitura eta entretenigarri honek. Antzina, diotenez, aratusteetako egun handian, asteartean, egiten zen. Guen Kanean egin ere: altuera handi samarrean kokaturik zeuden kale-hegal bateko eta besteko txingetatik soka lodi bat lotzen zen eta hatxe erdi-erdian ezartzen antzara buruz behera bizirik. Zaldi gainean gelditu gabe bere martxan joanez saiatu behar zuen zaldunak antzarari burua kentzen. Kanean hondarra botatzen omen zen, zaldiek labain egin ez zezaten. Burua kentzea lortzen zuenak, zaldun ezkutari eta gerrari legez harro-harro, bere damari botatzen omen zion antzara-buru odoldua; hau da, garaikur legez... Hauek, baina, antzinako kontu zaharrak dira, Erdi Aroko usaina darienak. Orain ere egiten da; ez, ordea, kanean, herriko zelaian baizik; animaliak aurrez akabatuak izaten dira. Eguna ere ez da aratusteetako asteartea, igandea baizik.



Animaliekin egin ohi diren joko eta entretenigarriekin jarraituz, gure herririk gehienetan ez dugula zezen-festarako joerarik esan behar. Nafarroan, ordea, oso zaleak dira. Iruñean eta Erribera aldean ez dela jairik esan daiteke zezenik ez bada. Bizkaiko hiriburua, Bilbo, zezenzale amorratua denik ez nuke esango, baina Aste Nagusian zezen-festak hutsik egin gabe antolatzen dituzte. Gipuzkoako hainbat herri ere ez dira horretan atzera gelditzen: Pasaia, Azpeitia, Tolosa, Deba... Xenpelarren bertsoak ditugu horren lekuko: *Pasaiako plazatik dator notizia / zezen bat izan zala jenioz bizia...*

Zenbait adituk eta ikertzailek diotenez, Espainiako erdialdean eta hegoaldean hain ospetsuak diren zezenketa horiek euskaldunek asmatuak dira eta Euskal Herrian izan zuten sorrera. Egia izan zein ez, badu egia antzik; gure herri-kirolen funtsa, eguneroko lana lehia eta joko bihurtzean baita.

Badaezpadako jarduera horiei, tradizioa dela-eta, beti hala egin izan dela-eta, aitzakiak eta arrazoi faltsuak aterata, ez ikusi egiten zaie; ez zaie begirutzen aurrez aurre, etikaren eta sentimendu finen begiez. Hala ere, geroago eta ozenagoak dira kontrako ahotsak, salaketa-airea dutenak. Nik neuk ere *Nire Umetako Meñaka* liburuan esan nituen gauzatxo batzuk. Hona handik harturik pasarte labur bat:

“Arrazoiak ateratzen hasita, baterakoak zein besterakoak atera leitekez, baina gizakion bihotzetako garratzasuna askatzeko eta oldarkortasuna kanporatzeko jarduera odoltsuetara, animalien sufrimenduaz gozatzera jotzeak, zer ete dauka onik?

Idi-probetan, akuilu-gana sartuta, odoletan, orroaka, mina aterata eta ahotik bitsa dariela ikusi izan ditut idi errukarriak. Ahari-topekak eta oilar-borrokak ez dira onargarriagoak. Meñakan, umetan, sarri ikusi ditut holakoak”.

Hona, irakurle hori, San Migel jaien bezperetan, herrietako jaien zikloa erdi amaiturik denean, haietan egin dugun sartu-irtentxo.

Luis Baraiazarra Txertudi